AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR
*BERRIOZARKO UDALA*

**Convocatoria de ayudas para estudios musicales en la Escuela Municipal de Música "Francisco Casanova" de Berriozar Curso 2022/2023**

**Bases Reguladoras**

**I. Objeto**

La presente convocatoria tiene por objeto regular la asignación de ayudas económicas al alumnado matriculado o a su/s representante/s legal/es en la Escuela de Música “Francisco Casanova” de Berriozar durante el curso escolar 2022-2023.

Las ayudas que se conceden tienen la finalidad de ayudar, en parte, a las familias en la financiación de los gastos que este tipo de estudios conlleva, siendo la enseñanza el concepto por el que se pueden solicitar las ayudas objeto de la presente convocatoria.

**II. Requisitos generales que debe reunir la persona solicitante.**

**2.1** Podrán ser beneficiarias de estas ayudas las personas que acrediten estar matriculadas en la Escuela de Música “Francisco Casanova” durante el curso 2022-2023, excepto las personas menores de edad, en cuyo caso serán beneficiarias sus representantes legales.

**2.2** Las personas solicitantes y beneficiarias de las ayudas deberán en todo caso constituir una unidad familiar empadronada en Berriozar, al menos, desde el 1 de junio de 2021, ininterrumpidamente.

A efectos de la convocatoria, son miembros computables de la unidad familiar el padre y/o la madre del alumnado objeto de la ayuda que convivan en el mismo núcleo, o en su caso, el tutor o la tutora o persona encargada de la guarda y protección del alumnado menor de edad y todas las personas (descendientes, ascendientes,

**Berriozarko Udalaren "Francisco Casanova" Musika Eskolan musika ikasketak egiteko laguntzen deialdia. 2022/2023 ikasturtea.**

**Oinarri Arautzaileak**

**I. Xedea**

Deialdi honen xedea da Berriozarko "Francisco Casanova" musika-eskolan 2022-2023 ikasturtean matrikulatutako ikasleei edo haien legezko ordezkariei diru-laguntzak emateko modua arautzea.

Ematen diren laguntzen helburua da familiei laguntzea, neurri batean, ikasketa mota horrek dakartzan gastuak finantzatzen, eta irakaskuntza da deialdi honen xede diren laguntzak eskatzeko kontzeptua.

**II. Eskatzaileak bete behar dituen baldintza orokorrak**

**2.1.** Laguntza hauek jaso ahal izanen dituzte 2022-2023 ikasturtean "Francisco Casanova" Musika Eskolan matrikulatuta daudela egiaztatzen dutenek, adingabeak izan ezik, kasu horretan haien legezko ordezkariak izanen baitira onuradunak.

**2.2.** Laguntzen onuradun eta eskatzaileek Berriozarren erroldatutako familia-unitatea eratu beharko dute, gutxienez, 2021eko ekainaren 1etik aurrera, etenik gabe.

Deialdiaren ondorioetarako, familia-unitateko kide konputagarriak dira laguntzaren xede diren ikasleen gurasoak, nukleo berean bizi direnak, edo, hala badagokio, tutorea edo ikasle adingabeen zaintza eta babesaz arduratzen den pertsona, baita 2021eko errenta-aitorpenean familia-gutxienekoagatik murrizketa dagokien pertsona guztiak ere (ondorengoak, aurrekoak, senideak...).

familiares...) por las que en la declaración de renta del año 2021 corresponda reducción por mínimo familiar. Además, será considerada unidad familiar la integrada únicamente por el alumno cuando sea menor legal o judicialmente emancipado.

La persona solicitante será el padre o la madre del o la estudiante objeto de la ayuda, o en su caso, el tutor o tutora o persona encargada de la guarda y protección de la o el estudiante menor de edad, así como la o el propio estudiante, en nombre propio, cuando la unidad familiar la integre el mismo.

**2.3** Las personas beneficiarias deben cumplir los requisitos que regula el artículo 13 de la referida Ley 38/2003, General de Subvenciones.

**2.4** La ayuda concedida estará condicionada al informe positivo del Director de la Escuela Municipal de Música "Francisco Casanova", referido al aprovechamiento escolar en el curso 2022/2023. El sentido negativo del citado informe podrá dar lugar a la suspensión y revocación de la ayuda concedida.

## III. Presentación de solicitudes.

Las personas interesadas presentarán su solicitud y los documentos que se relacionan, en el Ayuntamiento de Berriozar (Plaza Euskal Herria, 1) o en el Registro Electrónico (https://sedeelectronica.berriozar.es/registro-electronico/), entre los días 13 al 26 de junio, en horario de lunes a viernes, de 8:30 a 13:00.

**3.1** Las solicitudes de beca deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

**3.1.1** Instancia cumplimentada según modelo oficial. Se deberá indicar una dirección de correo electrónico de la persona beneficiaria.

**3.1.2** Fotocopia completa de la declaración del I.R.P.F. conjunta o individual de ambas personas progenitoras del año 2021 o certificado de la Administración correspondiente en el caso de no tener obligación de efectuar la declaración del I.R.P.F.

**3.1.3** Si la unidad familiar no ha realizado la declaración del I.R.P.F., por no estar obligada a ello, deberá acompañar a la solicitud:

Gainera, familia-unitatetzat hartuko da legez edo judizialki emantzipatutako adingabea den ikasleak bakarrik osatzen duena.

Eskatzailea laguntzaren xede den ikaslearen gurasoa izanen da, edo, hala badagokio, tutorea edo ikasle adingabearen zaintzaz eta babesaz arduratzen den pertsona, bai eta ikaslea bera ere, bere izenean, familia-unitateak hura osatzen duenean.

**2.3** Onuradunek Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan arautzen diren baldintzak bete behar dituzte.

**2.4.** Laguntzarako baldintza izanen da Udalaren "Francisco Casanova" Musika Eskolako zuzendariaren onespen-txostena, ikasleak 2022/2023 ikasturtean izandako aprobetxamenduari buruzkoa. Txosten hori ezespenekoa izateak ekarri ahal du emandako laguntza bertan behera uztea eta kentzea.

## III. Eskaerak aurkeztea

Interesdunek eskabidea eta aipatzen diren gainerako agiriak Berriozarko Udaletxean aurkeztuko dituzte (Euskal Herria plaza 1) edo Erregistro Elektronikoan (https://sedeelectronica.berriozar.es/eu/registro-electronico/). Ekainaren 13tik hasita eta ekainaren 26era bitartekoa izango da epea, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:00etara.

**3.1.** Beka eskaerarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

**3.1.1** Eredu ofiziala den eskabide betea. Onuradunaren helbide elektroniko bat eman beharko da.

**3.1.2** 2021eko PFEZaren aitorpen bateratuaren fotokopia osoa, edo bi ezkontideena, edo dagokion Administrazioaren ziurtagiria, PFEZaren aitorpena egitera beharturik ez daudenen kasuan.

**3.1.3** Familia unitateak, beharturik ez dagoelako, PFEZaren aitorpena egin ez

- Certificado o documento de la Hacienda correspondiente a los datos fiscales correspondientes al año 2021 de todas las personas que formen parte de la unidad familiar o borrador de la declaración de IRPF.

- Cuantos documentos sean necesarios para determinar las personas miembros de la unidad familiar.

**3.1.4** Autorización al Ayuntamiento de Berriozar para que este pueda consultar los datos fiscales de las personas beneficiarias en la hacienda tributaria de Navarra.

**IV. Requisitos económicos.**

**4.1** Que la renta per cápita familiar de 2021 no sea superior a 7.000 euros.

A los efectos de esta convocatoria, se considera renta per cápita anual a la cantidad que resulte de dividir la base imponible de la unidad familiar de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del año 2021; o, en su caso, la cantidad de ingresos justificados del año 2021 entre el número total de las personas miembros de la unidad familiar.

A efectos prácticos se entenderá que la base imponible es el resultado de la suma de las casillas: 507 (parte general de la base imponible) y 529 (rentas exentas) del impuesto sobre la renta de las personas físicas del ejercicio 2021 en la Comunidad Foral de Navarra o las casillas equivalentes en el resto del Estado.

En el caso de no estar en la obligación de presentar la declaración de la renta, la cantidad de ingresos a justificar del año 2021, se hará mediante certificado del Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno de Navarra que justifique la no obligación o, los documentos que se consideren necesarios para determinar los ingresos familiares del año 2021.

La ocultación de cualquier fuente de renta dará lugar a la denegación de la ayuda solicitada o a su anulación si ha sido concedida.

Para intensificar el control que evite el fraude en las declaraciones encaminadas a obtener ayudas, el

badu, eskabideari ondoko hau erantsiko zaio:

- Ogasunaren ziurtagiria edo dokumentua, familia unitatea osatzen duten pertsona guztien 2021eko datu fiskalei dagokiena, edo PFEZaren aitorpenaren zirriborroa.

- Familia unitateko kideak zehazteko behar diren agiri guztiak.

**3.1.4** Berriozarko Udalari emandako baimena, Nafarroako Zerga-Ogasunean onuradunen zerga-datuak ikusi ahal izateko.

**IV. Baldintza ekonomikoak.**

**4.1.** Familiaren 2021. urteko per capita errenta 7.000 eurotik gorakoa ez izatea.

Deialdi honi dagokionez, urteko per capita errentatzat hartuko da zatiketa honetatik ateratzen den zenbatekoa: 2021eko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako familia unitatearen zerga-oinarria (edo, hala behar badu, 2021ean justifikaturiko diru-sarreren zenbatekoa) zati familia unitateak dituen kide guztien kopurua.

Ondorio praktikoei dagokienez, zerga-oinarria Nafarroako Foru Komunitateko 2021eko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako laukitxo hauen baturaren emaitza da (edo Estatuaren gainerako tokietako laukitxo baliokideena): 507 (zerga-oinarriaren zati orokorra) eta 529 (salbuetsitako errentak) laukitxoen batura.

Errenta aitorpenik aurkeztera beharturik ez dagoenak, egiaztatu beharreko 2021eko diru-sarreren kopurua eta, beraz, beharkizun eza, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiri baten bitartez egiaztatuko du, edo, bestela, 2021ean familiak izan dituen diru-sarrerak zehazteko behar diren agirien bidez.

Errenta iturriren bat ezkutatzen bada, eskatutako laguntza ukatuko da edo, emana baldin badago, baliogabetuko da.

Laguntza lortzeko aitorpenetan iruzurra saihestuko duen kontrola areagotzeko,

Ayuntamiento de Berriozar podrá acordar que existe la ocultación a que se refiere en el apartado anterior por medio de cualquier prueba.

**4.2** No tener deudas pendientes con el Ayuntamiento de Berriozar en el momento de la solicitud ni en el momento de la concesión de las ayudas.

**4.3** Los intervalos de renta aplicables para la concesión de ayuda según los ingresos familiares per cápita son los siguientes:

Menor o igual a 3.300 euros: ayuda máxima 75%.

Más de 3.300 a 5.300 euros: ayuda máxima 65%.

Más de 5.300 a 6.600 euros: ayuda máxima 40%.

Más de 6.600 a 7.000 euros: ayuda máxima 30%.

El porcentaje de ayuda reseñado para cada intervalo de renta per cápita es el máximo que se puede conceder y su porcentaje exacto dependerá de la consignación presupuestaria existente y de las solicitudes presentadas.

**V. Concesiones y denegaciones.**

**5.1** La resolución de esta convocatoria la realizará la Junta de Gobierno Ayuntamiento de Berriozar.

**5.2** A todos los efectos legales, la concesión de la ayuda será a favor de la persona beneficiaria.

**5.3** El Ayuntamiento de Berriozar podrá en cualquier momento disponer la inspección de los expedientes de solicitud para comprobar la veracidad de los datos consignados en los mismos y que sirvieron de base para la concesión de la ayuda.

**5.4** Las personas beneficiarias o solicitantes que se nieguen a colaborar en el proceso de investigación o no aporten la información y documentación requerida causarán baja automática como solicitante o beneficiaria y reintegrarán las cantidades percibidas en concepto de ayuda.

**5.5** La ocultación o falseamiento de los dados económicos y/o circunstanciales, podrá dar lugar a la suspensión y revocación de la ayuda concedida.

Berriozarko Udalak edozein frogaren bidez erabaki ahal du aurreko atalean aipatzen den iturri ezkutaketa badagoela.

**4.2.** Eskaera egiten denean eta diru-laguntza ordaintzen denean zorrik ez izatea Berriozarko Udalarekin.

**4.3** Hauek dira laguntza emateko aplikatuko diren errenta tarteak familiaren biztanle bakoitzeko diru-sarreren arabera:

3.300 euro edo hortik behera: %75, gehieneko laguntza.

3.300 eurotik 5.300 eurora: %65, gehieneko laguntza.

5.300 eurotik 6.600 eurora: %40, gehieneko laguntza.

6.600 eurotik 7.000 eurora: %30, gehieneko laguntza.

Biztanle bakoitzeko errentaren tarteetan adierazitako laguntzaren ehunekoa eman daitekeen gehienekoa da, eta haren ehuneko zehatza dagoen aurrekontu-esleipenaren eta aurkeztutako eskaeren araberakoa izanen da.

**V. Laguntza ematea eta ukatzea**

**5.1.** Berriozarko Udalaren Gobernu Batzarrak emanen du deialdiari buruzko ebazpena.

**5.2.** Legezko ondorio guztietarako, laguntza onuradunari emanen zaio.

**5.3.** Berriozarko Udalak noiznahi ikuskatu ahalko ditu eskaerako espedienteak, haietan ezarritako datuak, laguntza emateko oinarritzat hartutakoak, benetakoak diren ala ez egiaztatzeko.

**5.4.** Ikuskapen prozesuan laguntzeari uko egin edo eskatutako informazioa eta dokumentazioa aurkezten ez duten onuradun edo eskatzaileek, besterik gabe, onuradun edo eskatzaile izateari utziko diote, eta jasotako laguntza itzuli egin beharko dute.

**5.5.** Datu ekonomikoak eta/edo zirkunstantzialak ezkutatu edo faltsutzearen ondorioz, emandako laguntza etetea eta

**5.6** El abono de las ayudas en aplicación de esta Convocatoria se hará con cargo a la partida presupuestaria 32610 48000000 BECAS ESTUDIOS MUSICALES, del vigente presupuesto de gastos del Ayuntamiento de Berriozar, y ascenderán a un máximo total de 4.500 euros.

**5.7** Estas ayudas son compatibles con las concedidas por otras administraciones o entidades privadas.

**5.8** La cuantía de estas ayudas nunca podrá superar, aisladamente o en concurrencia con las ayudas o subvenciones provenientes de otras Administraciones Públicas o de otras entidades públicas o privadas, el coste de la misma.

**5.9** En el caso de que la subvención concedida junto con el resto de los ingresos obtenidos para la financiación de la actividad objeto de subvención supere el coste de la misma, se procederá a la modificación de la resolución de concesión en el sentido de minorar la cuantía concedida en el importe del exceso de financiación obtenido.

**VI. Obligaciones de la persona beneficiaria.**

Son obligaciones de la persona beneficiaria, cuyo incumplimiento pudiera dar lugar a la pérdida del derecho a la percepción de las ayudas objeto de la presente convocatoria:

- Comunicar al Ayuntamiento los cambios relevantes introducidos en el desarrollo de los cursos subvencionados.
- Facilitar el cometido de los/as evaluadores.
- En el caso de que los cursos subvencionados reciban ayuda económica de otro organismo o administración, deberá comunicarse de forma inmediata al Ayuntamiento.

**VII. Normativa aplicable.**

Para la interpretación y aplicación de las presentes Bases serán de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento de Subvenciones, así como la Ordenanza Municipal de

errebokatzea eragin dezake.

**5.6.** Deialdi hau aplikatuta ematen diren laguntzak ordaintzeko, 32610 48000000 kontu-saila erabiliko da (Musika Ikasketen Bekak), Berriozarko Udalak indarrean duen gastuen aurrekontutik; gehienez ere, 4.500 euro.

**5.7** Laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde pribatuek emandakoekin.

**5.8.** Laguntzen zenbatekoak (bakarka hartuta edo beste administrazio publikoek edo beste erakunde publiko edo pribatuek emandako laguntza edo dirulaguntzekin batera) ezin izanen du inoiz gainditu jardueraren kostua.

**5.9.** Emandako dirulaguntzak eta dirulaguntzaren xede den jarduera finantzatzeko lortutako gainerako diru-sarrerek jardueraren kostua gainditzen badute, dirulaguntza emateko ebazpena aldatuko da, emandako zenbatekoa lortutako gehiegizko finantzaketaren zenbatekoan murrizteko.

**VI. Onuradunaren betebeharrak**

Onuradunak betebehar hauek izanen ditu, eta ez betetzeak deialdi honen xede diren laguntzak jasotzeko eskubidea galtzea ekar diezaioke:

- Udalari jakinaraztea diruz lagundutako ikastaroen garapenean egindako aldaketa garrantzitsuak.
- Ebaluatzaileen zeregina erraztea.
- Diruz lagundutako ikastaroek beste erakunde edo administrazio baten dirulaguntza jasotzen badute, Udalari berehala jakinaraztea.

**VII. Araudi aplikagarria.**

Oinarri hauek interpretatzeko eta aplikatzeko, honako hauek erabiliko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko uztailaren

Subvenciones.

**VIII. Interpretación.**

**8.1** La interpretación de estas bases corresponde a la Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Berriozar.

**IX. Información Básica Protección de Datos.**

**Responsable**: Ayuntamiento de Berriozar. **Finalidad**: Gestionar las ayudas y subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento. **Derechos**: Acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, como se explica en la información adicional**. Información adicional**: La información adicional y detallada sobre los tratamientos de datos y Delegado de Protección de Datos está disponible en el apartado de Política de Privacidad de la Web municipal www.berriozar.es dpd@berriozar.es.

21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza.

**VIII. Interpretazioa**

**8.1.** Berriozarko Udaleko Gobernu Batzarrari dagokio oinarri hauen interpretazioa.

**IX. Datuak Babesteko Oinarrizko Informazioa.**

**Arduraduna:** Berriozarko Udala. **Xedea**: Udalak emaniko laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea. **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzea, baita beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azalduta dagoen bezala. **Informazio gehigarria:** Datuen tratamenduei buruzko eta Datuak Babesteko Ordezkariari buruzko informazio gehigarria Udalaren webgunean dago eskuragarri, Pribatutasun Politika atalean www.berriozar.eus / dpd@berriozar.es